




EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN KOORDINATZAILEA



EMAKUMEA ETA

DES-
DESGAITASUNA DUTEN
EMAKUME ETA NESKATOEN
ESKUBIDE-BERDINTASUNA-
REN ETA DISKRIMINAZIO-
RIK EZAREN ALDE

GAITASUNA



elkartean
ARG TALPENAK
PUBLICACIONES



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EMAKUMEA ETA DES- GAITASUNA

AURKIBIDEA

<i>Elkartean</i> : «Berdintasuna lortzeko gizartearen eraldatzen»	4
Desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatuen eskubide berdinen eta diskriminaziorik ezaren alde	6
Zergatik daukagu desberdinkeria eta diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa desgaitasun fisikoa dugun emakumeek eta neskek?	8
Zein dira gizartearen eragiten dizkigun desberdinkeria-faktoreak?	14
<i>Elkartean</i> erakundearen jarrera eta proposamenak desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatuen eskubide-berdintasunerako eta eskubideak bermatzeko	26

Elkartean

berdintasuna lortzeko gizartea eraldatzen

Elkartean Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkartearen Mugimendua biltzen duen Federazio eta Elkartearen Konfederazioa da.

Pertsona guztiak barne hartuko dituen gizarte bat lortzeko dihardu lanean; gizarte irisgarria nahi dugu, justua, ekitatiboa, eta desberdintasunik gabe gure eskubideak gauzatzeko modukoa.

Desgaitasun fisikoa duten Euskadiko emakume eta gizonen aukeraberdintasuna defendatzen du, eskubide osoko herritarrak baitira, gizarte inklusiboaren barruan.

Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako lortzen diren aurrerapauso guztiak herritar guztien onerako baitira. Honako hauek dira gure ekintza-eremuak:

BIZIMODU INDEPENDENTEA Non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitzeko eskubidea.	ENPLEGUA Lan-eremu ireki, inklusibo eta irisgarrian lana egiteko eskubidea.	HEZKUNTZA Pertsona bakoitzaren beharrezanez erantzungo dien hezkuntza-eskaintza eta -ingurua izateko eskubidea.
IRISGARRITASUNA Pertsona guztiek erabiltzeko moduko inguru, prozesu, ondasun produktu eta zerbitzuak izateko eskubidea.	OSASUNA Arreta sanitario eta soziosanitario irisgarri eta kalitatezkoa izateko eskubidea.	EMAKUMEA Desgaitasuna duten emakume eta neskatuentzako eskubide berdinak eta diskriminaziorik eza.

Gurekin harremanetan jartzeko:



EGINAREN EGINEZ

Simón Bolívar plaza 9 behea
01003 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 225 516
www.eginez.org
info@eginez.org



ELKARTU

Ondarreta pasealekua 5 behea
20018 Donostia
Tel.: 943 316 770
www.elkartu.org
elkartu@elkartu.org



FEKOOR


Blas de Otero 63 behea
48014 Bilbo
Tel.: 944 053 666
www.fekoor.com
fekoor@fekoor.com



www.elkartean.org

DESGAITASUN FISIKOA
DUTEN EMAKUME
ETA NESKATOEN

ESKUBIDE
BERDINEN ETA
DISKRIMINAZIORIK
EZAREN ALDE



elkartean-ek aldarrikatu nahi du, desgaitasun fisikoa dugun emakume eta neskato guztiok gure giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiez erabat eta besteen baldintza berberetan gozatu ahal izatea, gureganako diskriminazio mota oro ezabatuz.

Hala aitortzen eta bermatzen du **Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 6. artikulua** (Desgaitasuna duten emakumeak):

1. *Estatu kideek aitortzen dute **desgaitasuna duten emakumeek eta neskatoek bereizkeria mota ugari jasaten dituztela, eta horri dagokionez, egokitze jotzen dituzten neurri guztiak hartuko dituzte, giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiez erabat eta berdintasun baldintzetan goza dezaten.***
2. *Estatu kideek **egokitze jotzen dituzten neurri guztiak hartuko dituzte, emakumearen erabateko garapena, aurrerapena eta indartzea ziurtatzeko, asmoa izanik bermeak ezartzea, Konbentzio honetan ezarritako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak gauzatu edo balia ditzan.***

Era berean, **azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena)** honako neurri hauek hartzera behartzen ditu administrazio publikoak:


1. ***Bereziki babestu behar dituzte** desgaitasuna duten pertsonen eskubideak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, bai eta diskriminazio anizkoitza jasateko arrisku berezia duten pertsonak edo pertsona-taldeak ere, hala nola desgaitasuna duten neskak eta emakumeak (7.3 eta 7.4. artikulua).*
2. ***Diskriminazio handiagoa jasan dezaketen pertsonen mesederako **ekintza positiboko neurriak hartu behar dituzte**, hala nola desgaitasuna duten emakumeen mesederako (67. artikulua).***

Otsailaren 18ko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legearen zioen azalpenean ere, onartu egiten da emakume askok anitz bereizkeria jasaten dutela, sexuaren ziozko bereizkeriaz gain, beste batzuk ere pairatzen baitituzte, desgaitasunak eragindakoak (besteak beste) Horrek guztiak, hainbat kasutan, baldintzatu egiten du emakumeek benetan balia ditzaten herritarrek berez dituzten eskubideak. Hori dela eta, euskal botere publikoak behartuta daude emakumeen edo emakume-taldeen oinarritzko eskubideak benetan baliatzen direla bermatzera, baldin eta diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen badira, hala nola desgaitasuna edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

ZERGATIK DAUKAGU DESBERDINKERIA ETA DISKRIMINAZIOA JASATEKO ARRISKU HANDIAGOA

DESGAITASUN FISIKOA
DUGUN EMAKUMEEK ETA
NESKEK?

Patriarkatuaren kulturarekin eta gure desgaitasuna
bakarrik hautematearekin lotutako **ingurune**
hainbat zapalkuntza-faktore elkartzen dira



Desberdinkeria, diskriminazioa, zaurgarritasuna,
bazterketa eta isolamendua jasateko
arrisku handiagoa

Desgaitasun fisikoa duten emakumeen kasuan, patriarkatuaren kulturarekin eta gure desgaitasuna bakarrik hautematearekin lotutako inguruneko hainbat zapalkuntza-faktore elkartzen dira.

Gugan hainbat identitate sozial gainjartzen dira, elkarri eragiten diote, eta zaurgarritasun-faktore batzuei aurre egitera behartzen gaituzte, bai pertsonalei, bai sozialei. Faktore horien ondorioz, diskriminazio mota asko jasaten ditugu, hainbat zapalkuntza-, menderatze- edo diskriminazio-sistema elkartzen baitira (desgaitasuna, emakumea, orientazio sexuala, jatorria, hizkuntza, kultura, gizarte-bazterketa, etab.).

Gizarte patriarkal batean bizi gara, eta horrek emakume guztiei eta, bereziki, desgaitasuna duten emakume eta neskei eragiten dien rol batean kokatzen gaitu, eta ondorioz, muturreko zaurgarritasun-egoerak jasaten ditugu.

Horregatik, emakumeak, gure aniztasuna kontuan hartuta, desberdinak gara gure artean ere, beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuen arabera, hala nola hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, adina, desgaitasuna eta abar.

Generoagatiko eta desgaitasunagatiko diskriminazioari heltzeko, kontuan hartu behar da harreman-kategoriak direla: ez da batetik generoagatiko diskriminazioen eta, bestetik, desgaitasunagatiko diskriminazioen batura automatikoa gertatzen; aitzitik, interseksionalitateak egoera espezifikoak sortzen ditu, eta horien aurrean konponbide zehatzak hartu behar dira.

INTERSEKZIONALITATEA:

Ikuspegi horrek azpimarratzen du generoa, etnia, klasea edo orientazio sexuala, beste kategoria sozial batzuen antzera, «naturalak» edo «biologikoak» izan beharrean, eraikiak direla eta elkarri lotuta daudela. Gainjarritako edo elkarri lotutako identitate sozialen eta horien zapalkuntza-, menderatze- edo diskriminazio-sistemen azterketa da.

PATRIARKATUA:

Gizartea antolatzeko sistema horretan, boterearen funtsezko postuak (politikoak, erlijiosoak, sozialak eta militarrik), oro har, eta eskusiboki, gizonen esku daude.

DISKRIMINAZIOA:

Jatorri etnikoan, sexuan, adinean, desgaitasunean, egoera sozial edo ekonomikoan, osasun-baldintzetan, haurdunaldian, hizkuntzan, erlijioan, iritzietan, sexu-lehentasunetan, egoera zibilean edo beste edozein ezaugarritan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, baldin eta pertsonen eskubideak aitortzea edo gauzatzea eta benetako aukera-berdintasuna eragozten edo baliogabetzen badu.

Horren ondorioz, desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatook:



Ikusezintasuna jasaten dugu eta gure eskubideak ukatzen dizkigute.

Desgaitasuna dugun emakume eta neskatook **talde sozial isolatu eta ikusezina** osatzen dugu, mota guztietako murrizketa eta mugei aurre egin behar izaten diegu, desberdinkeriaz tratatu gaituzte luzaroan eta politikaren arloan ez digute parte hartzen utzi.

Hori guztia gertatzeko arrazoiak, ez dira izan gure desgaitasun-motak edo graduak, baizik eta **estereotipo, aurreiritzi eta rol sozialen ondorio diren egoerak**; izan ere, gizartean berdintasunezko baldintzetan **parte hartu eta laguntzeko dugun gaitasuna murrizten baitute**, eta jaiotzatik bertatik, emakume edo neskato bakoitzak egin dezakeena edo egin ezin dezakeena adierazi eta zehazten dute.

Desgaitasuna, generoa bezala, emakumeak markatzen dituen eraikuntza kulturala da, **gure aukerak eta ametsak mugatzen dituen**: emakumea izateak eta desgaitasuna edukitzeak ia desagerrarazi egiten du egin ditzakegun gauzen eta izan ditzakegun aukeren sorta.

Generoak eta desgaitasunak elkarrekin sortzen duten gizarte-eraikuntzak gure desioak geldiarazten ditu, gure nahiak moldatzen ditu, mugatu egiten ditu, eta ikusezintasunera eta, beraz, existentziarik ezera eramaten gaitu. Azken batean, ikusezin bihurtzen gaitu eta, ondorioz, ukatu edo zaildu egiten digu gure eskubideak eskuratzea.

IKUSEZIN BIHURTZEA:

Desgaitasuna duten emakumeek egiten dituzten jardueri gizarteak egiten dien balio-galera, naturalizat hartzen dituztelako.

ESTEREOTIPOAK:

Talde jakin bati buruzko uste edo irudi mentalen multzo oso sinplifikatua eta, xehetasun gutxikoa. Irudi hori orokortu eta taldeko kide guztiei ezartzen zaie. Sineste ilogikoak dira, eta sentsibilizazioa, hausnarketa eta, batez ere, hezkuntzaren bidez bakarrik desagerrarazi daitezke.

Horren ondorioz, desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatook:

Autoestimua baxua eta ahalduntze mugatua izaten dugu.

Aurreko guztiak eragin zuzena du gure autoestimuan. **Guk geuk gure gaitasunak eta horiek garatzeko aukerak ukatzeko joera dugu.**

Askotan, gainerako emakumeentzat ezarritako rol sozialarekin lehiatzeko orduan, gutxiagotasun-sentimendua izaten dugu. Sarritan, ez gara oso erakargarriak sentitzen, ez gaude oso seguru geure buruaz, ez dugu gaitasun handirik giza harremanetan (batez ere bikotekidea izateko eta bizimodu independente berri bat garatzeko orduan). **Norbere burua hautemateko modu negatibo** hori, gainera, larriagotu egiten da, sarritan prestakuntzarik ez dutelako, enplegurik ez daukatelako, gaitasun ekonomiko gutxi edo batere ez dutelako, eta zaintza-lanetara baztertuak izaten direlako.

Egoera hori **modu kezkagarrian larriagotzen da gerora etorritako desgaitasun larria duten emakumeen kasuan**. Egoera horretan, hurbilekoek uste izaten dute, behin fase klinikoa amaituta, bere bizitza lehen zituen baldintza berberetan hasiko duela berriz ere. Familia aurrera ateratzea, lan bat edukitzea eta sozialki trebea izatea, besteen itxaropenei erantzutea eta antzeko ekintzek barne-gatazka handiak sortzen dizkiete emakume horiei.

AHALDUNTZEA:

Aldaketa-prozesu horren bidez, emakumeek botere-mekanismoetarako sarbidea handitzen dute, beren egoera hobetzeko, eta beren burua erabaki-indarreko eremu hori betetzeko gaitasunarekin eta eskubidearekin hautematen dute.



Eta hori guztia, gehienetan **ez zaigulako aukerarik eman:**

- 1) estrategiak eskuratzeko, gizartean modu aktiboan parte har dezagun,
- 2) geure burua defendatzeko gure eskubideak urratu dituztenean,
- 3) ahalduntze indibidual eta kolektiboko geure prozesua bizitzeko.

Era berean, horrek **zaildu egiten digu jakitea noiz jasaten ditugun** abusuak, gure eskubideen urraketak, baliabideak eskuratzeko aukerarik eza, edo edozein diskriminazio-mota. Gainera, ez gara ausartzen **laguntza eskatzera, gure eskubideak exijitu eta aldarrikatzera edo egoera horiek salatzer**a.



HORREGATIK, DESBERDINKERIA, DISKRIMINAZIOA,
ZAURGARRITASUNA, BAZTERKERIA
ETA ISOLAMENDUA JASATEKO ARRISKU
HANDIAGOA DUGU.

ZEIN DIRA

GIZARTEAK
ERAGITEN DIZKIGUN
DESBERDINKERIA-
FAKTOREAK?

Lehen mailako herritarrak izateko **inguruan ditugun makina bat oztopori egin behar izaten diegu aurre** eta oztopo horiek, berez, **gizarte-bazterketaren muturrera eramaten gaituzten** indarkeria-ekintzak dira. Lehen mailako herritarrak izateko, **era askotako desberdinkeria-faktoreei egin behar izaten diegu aurre**.

Talde oso heterogeneoa izan arren (desgaitasuna duen neskato edo emakume bakoitza bakarra eta desberdina da), gure desgaitasunagatik eta generoagatik estigmatizatuta bizitzearen espezifikotasuna partekatzen dugu (izan ditzakegun beste baldintza batzuk alde batera utzita: gizarte-bazterketa, arraza, sexu-orientazioa, etab.), eta esan dezakegu, oro har, **gure desberdinkeria-egoera elkarri lotuta dauden alderdi hauetan islatzen dela:**



Hezkuntza-maila baxuagoak eta analfabetismo-indize handiagoa.

Ikasteko aukera berdinak ematen ez zaizkigunez, baliabide espezializatueta (prestakuntza eta enplegu babestua) aukera eta ibilbideetarako orientazioa baino ez dugu jasotzen, eta gure gaitasunak eta ahalmenak gutxiesten dituzte.

Familiek gehiegizko babesa emateak eta zaintza-zereginetara baztertzeak ere, zaildu egiten dute hezkuntza-garapenerako aukerak eskuratzea. Gizarte «normalizatzaile» honetan nagusi diren aurreiritzi kulturalen ondorioz, desgaitasuna dugun emakumeok familietan hazi gara, sinetsita gizarteak guretzat gordeta duen lekua etxeko esparrua dela, eta, horrela, zaintzaren rol tradizionalak esleitzen dizkigute eta prestakuntza izateko aukera ukatzen digute.

- Desgaitasuna duten emakumeen % 5 analfabetoak dira (desgaitasunik ez duten emakumeen % 0,5).
- Desgaitasuna duten pertsonen % 20k lehen mailako ikasketak baino ez ditu (desgaitasunik ez duten biztanleen % 8k), eta % 17k baino ez ditu goi-mailako ikasketak (desgaitasunik ez duten pertsonen % 35ek).

Iturria: INE. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua (2018).



Lan-jarduera txikiagoa eta erantzukizun txikiagoko lanpostuak, gutxi ordaindutakoak eta/edo emakumeen eginkizun tradizionalari lotutakoak.

Prestakuntza eta kualifikazio egokirik ez dugunez, **lan-merkatuan sartzeko aukera gutxi edo batere ez dugu**, eta horrek diru-sarrerak eskuratzea eta independentzia lortzea eragozten digu.

Faktore pertsonalek (norbere burua gutxiestea, norberaren gaitasunak ez ezagutzea, prestakuntza-gabeziak, diskriminazio zuzenak eta lausoak), familia-faktoreek (gehiegizko babesak, familia-nukleoko beste pertsona batzuek lana eta familia bateratzeko edo diru-sarrerak administratzeko duten zailtasuna) eta gizarte-faktoreek (enplegatzaile askok oraindik dituzten aurreiritziak, irudi fisikoaren garrantzia edo portaera sexisten nagusitasuna) betikotu egiten dute, gure gogoz kontra, desgaitasuna dugun emakumeok gizonen aldean dugun **jarduera-ezaren tasa altua**.

Enplegua lortuz gero, **enplegu babestua lortzeko aukera baino ez dugu izaten**. Gainera, aukera horiek bereizleak izaten dira eta soldata-baldintza eskasak izaten dituzte. Baina **aukera horietan ere, askoz gutxiago dira lanean dabilen desgaitasuna duten emakumeak** desgaitasuna duten gizonekin alderatuta.

Sarritan, enplegu-aukera bakarrak **«emakumeen rolaren berezko» sektore eta lanbideak** dira: garbiketa, garbitegiko lanak, etxeko zerbitzuak, etab.

Horrek guztiak bizimodu independentea garatzea eragozten digu, eta ezin izaten dugu aukeratu nola, non eta norekin bizi nahi dugun.

- *Emakumeen jarduera-tasa gizonena baino 12 puntu txikiagoa da.*
- *Desgaitasuna duten emakumeen jarduera-tasa beste emakume batzuen jardueratasa baino 38 puntu txikiagoa da.*

Iturria: INE. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua (2018).

- *Desgaitasuna duten langileen % 30 inguru bakarrik dira emakumeak enplegu babestuko enpresa handietan (Gureak edo Lantegi Batuak). Bai EZBetan, bai laguntzadun enplegua edo prestakuntzako beste enplegu-aukera batzuetan.*

Iturria: Gureak eta Lantegi Batuak-eko memoriak (2019).

Isolamendu sozial handiagoa eta parte-hartze txikiagoa komunitateko jardueretan.

Oro har, emakumeentzako programa edo zerbitzuetan ez dugu lekurik edo leku gutxi dugu.

Horren adibide da **desgaitasuna duten emakumeen parte-hartze aktibo eskasa mobilizazio feministako talde, gune edo foroetan.**

Emakume guztien eskubideen aldeko mugimendu feministetan ez da gure aniztasunaren aitorpenik egiten, ezta aldarrikapenik ere. Espazio eta ekimen horiek ez dira egokitzen gure parte-hartzea errazteko.




Komunitatearen baliabideak gutxiago erabiltzen ditugu eta babesgabetasun soziosanitario handiagoa eta osasun-arreta desegokia izaten dugu irisgarriak ez diren espazioetan.

Zainketa medikoen kontsumitzaile garrantzitsuak garenez, sarritan izaten ditugu **osasun-arreta desegoki eta irisgarritasunik gabeak** eragindako arazoak.

Patologia eta gaixotasun asko desgaitasunari egozten zaizkio, eta ez dugu proba diagnostiko eta tratamendu egokirik izaten.

Era berean, osasun-zentroetan eta ospitaleetan (bereziki, ginekologia-kontsultetan, bularreko minbizia detektatzeko kanpainetan, etab.) ez da irisgarritasunik egoten zentro, espazio, altzari eta abar erabili ahal izateko.



EAEko ospitaleetako arreta ginekologikoko kontsultetan:

- Ez dago diagnostiko-mahai irisgarririk.
- Ohatilen % 45ek soilik dute lekualdaketa bat egiteko altuera egokia, baina ia ezinezkoa da ohatilak erabiltzea, dituzten ezaugarriengatik. Hala eta guztiz ere, kontsulten % 4k soilik dute lekualdaketa-garabia.
- Kontsultetara sartzeko ateen % 28k soilik dute pasabide librerako zabalera egokia, eta kontsultategien % 44k baino ez dute biraketa barruan egiteko lekua.
- Ez dago gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten emakume-entzako jantzirik.
- Komunen % 20 ez dira irisgarriak.

Iturria: Desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasunari buruzko diagnostikoa EAEko ospitaleetan. Arartekoa (2017).

Mendekotasun afektibo, emozional, sozial eta ekonomiko handiagoa (familiarekiko eta gizarte-prestazioekiko), gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiagoa.

Aurreko egoeren ondorioz (desberdinkeria hezkuntza-sistamarako eta enplegurako sarbidean, parte-hartze sozial eskasa eta isolamendua), mendetasun-egoera berezia jasaten dugu eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan gaude:

- Izaten ditugun **mendekotasun afektibo eta emozionaleko harremanek** abusu- edo indarkeria-egoerekiko bereziki zaugarri bihurtzen gaituzte.
- Senideekiko, bikotekidearekiko eta haiekin bizi diren pertsonetikiko **mendekotasun ekonomikoa**; horrek, halaber, zaildu egiten digu bizitza-ibilbide independente bat egitea.
- **Prestazio ekonomiko eta pentsioekiko mendekotasuna.**
- **Gizarte-bazterkeria jasateko arriskua**, diru-sarrera mugatuen ondorioz.

Desabantaila soziala dago gizonen eta emakumeen gaitasun ekonomikoa alderatzen denean. Senideen gehiegizko babesaren ondorioz, emakumeek lanik egiten ez dutenean, kotizazio gabeko pentsioetara jo behar izaten dute maiz, oinarritzko diru-sarrerak ziurtatzeko. Beren familia-unitatea sortu eta gurasoen etxetik ez badira irteten, gurasoekiko mendetasunari eusten diote, eta gutxitan erabiltzen dituzte zuzenean erakunde publikoek emandako prestazio ekonomikoak, diru-sarrera horiek, askotan, familiak administratzen baititu zuzenean. Muturreko egoera hori maizago gertatzen da landa-eremu xume eta isolatueta.

Emakumeek sortzetiko desgaitasun fisiko larria, prestakuntzarik eza eta baliabide ekonomiko urriak dituztenean, egoerak okerrera egiten du gurasoak ez daudenean. Une horretan, gainerako zuzeneko senitartekoek nahiago dute desgaitasuna duen


- *1 de cada 3 pcd está en riesgo de pobreza y/o exclusión (31,1%) = 7 puntos porcentuales más que la población sin discapacidad*

Fuente: 9º Informe Arope 2019.

- *El 30% de las personas con discapacidad se encuentran en situación de exclusión social.*

Fuente: VIII Informe FOESSA 2019.

pertsonaren plazaren kostu erantsia bere gain har dezakeen egoitza publikoren batean instituzionalizatu, eta erabateko ikusezintasunera kondenatzen dituzte gainerako biztanleak baino gazteagoak direnean. Aldiz, independenteak direnean eta beren familia-unitatea sortu dutenean, ekonomia orokorraren mende daude gehienbat. Baina ekonomia orokor hori desagertu egiten da banandu edo dibortziazten direnean.



Gure afektibitatea eta bizitza sexuala ukatzea, bai eta, hala nahi izanez gero, ama izateko eta amalanetan aritzeko aukera ukatzea ere, banandu edo dibortziazten garenean edo indarkeria jasaten dugunean.

Ez gaituzte emakumetzat hartzen, gure desgaitasunaren muga baino ez dute ikusten. Ez dute **gure sexualitatea** aintzatesten. Gu geu ere ez gara askotan jabetzen eta gai izaten gure sexualitatea ezagutzeko eta sexualitateaz gozatzeko, ukazio-ibilbide horren mende gaudenean.

Ziurtzat jotzen da behar gaituzten beste pertsona batzuk zaindu ditzakegula (gurasoak, mendekotasuna duten beste senide batzuk), baina, aldi berean, **ezin dugu ama bihurtu** (hala nahi dugunean): desgaitasuna duten emakume askok nahitaez esterilizatu behar izan dute, eta ukatu egin zaigu ama izateko gaitasuna eta aukera. Era berean, ukatu egiten zaigu adingabeak hartzea, edo mendetasuna duen pertsona baten «zaintzaileei» aitortutako prestazioak jasotzea.

Halaber, ezinezkoa da **desgaitasuna duten amek beren seme-alaben zaintzari eustea** bikotekidearengandik banandu edo dibortziazten direnean. Are gehiago, indarkeria jasaten dutenean, haiengandik urruntzen dituzte, beren erantzukizunak betetzeko eta seme-alabez gozatzeko eskubidea galaraziz.

Zaurgarritasun handiagoa mota guztietako indarkeria eta abusuen aurrean

Edozein erasotzaileraren (bikotekidea, bikotekide ohia, bizikidea, senidea, zaintzailea, etab.) **edozein motatako indarkeria eta abusuak** (abusu fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa, abandonu fisikoa edo emozionala) **jasateko arrisku handiagoa**, edozein lekutan (bizilekua, egoitza edo bizi den erakundea, ospitalea, etab.).

Zaurgarritasun handiago hori **lotuta dago**, halaber, gure **irudi sozialarekin**, bai eta gure aurka egindako sexu-abusuak azaltzeko edo justifikatzeko erabili diren azalpenekin (zenbaitetan irrazionalak) ere.

- Informazio faltak emakume askori tratu txarrak ez direla salatu behar sinestarazten die.
- Informazio- eta aholkularitza-guneetara iristeko zailtasuna, batez ere mota guztietako arkitektura- eta komunikazio-oztopoak daudelako.
- Sarritan indarkeria bultzatzen duten inguruneetan bizitzea: familia desegituratuak, erakundeak, egoitzak eta ospitaleak.

Desgaitasun fisikoa duten eta indarkeriaren biktima diren emakume asko **ez dira jabetu ere egiten indarkeriaren biktimak direnik**. Gutako baten aurka egindako indarkeriazko ekintza baten onarpen- edo merezimendu-sentimendua, sarritan, norberaren desgaitasunaren bizipenari buruz izaten den pertzepzio okerraren parte da. Beste batzuetan, ez da antzematen indarkeriazko jokabideak, salagarriak eta gure giza eskubideak urratzen dituztenak direnik: «Ni naiz erruduna, ez naizelako konturatzen, gaizki egiten dudalako, ez dudalako ezertarako balio. Merezidut». Autojustifikazio horiek guztiak gizarteak desgaitasuna duten pertsonei buruz duen irudi sozialaren beraren ondorioz onartu ohi dira (gizartea, oro har, eta desgaitasuna duten pertsonak

- Desgaitasuna duten emakumeen % 20,7k bikotekideren baten indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du (desgaitasunik gabeko emakumeen % 13,8k).

- Desgaitasuna duten emakumeen %40,4k bikote barruko indarkeria jasan du (desgaitasunik ez duten emakumeen % 31,9k).

Iturria: Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko makroinkesta. 2019.

Zaurgarritasun handiagoa mota guztietako indarkeria eta abusuen aurrean

berak irudikatzen dituen kultura menderatzailean sakonki errotuta dago irudi hori). Horri guztiari gehitu behar zaizkio tratu txarrak adierazteko zailtasun handiagok, komunikazio-kode desberdinak daudelako, eta horrek sinesgarritasun txikiagoa ekar dezakeelako; gainera, abusua salatzeke beldurra eragin dezake, loturak eta zainketak galtzeko arriskuagatik.

Baina, zalantzarik gabe, eraso larriagoei eta ohikoagoei aurre egin behar dieten emakumeak honako hauek dira: laguntza-premia handienak dituztenak, garapen mentaleko eta/edo komunikazioko arazo handienak dituztenak eta jaiotzetik desgaitasuna dutenak; horiek guztiak zenbait egoera beren desgaitasunari atxikiak zaizkiola pentsatuta hazi baitira.

Moral-, kultura- edo erlijio-izaerako osagaiek baldintzatzen dute desgaitasuna duten emakumeak nola hautematen dituen gizarteak, askotan izaki inperfektu, mendeko eta ahul gisa. Irudi horri sexu-abusuaren inguruko tabuak eta motibazioak gehitzen badizkiogu, elementu indartsuak aurkituko ditugu eraso-egoera hori betikotzeko.

Bestalde, urritasunen baten larritasunak eta gaikuntza edo errehabilitazio egokirik ezak **babesgabetasun larria eragin dezakete, abusu edo tratu txarrei aurre egin ezin zaielako**. Heldutasunean desgaitasuna hartzeak, sarritan, beste pertsona batzuen laguntza eta zaintzarekiko mendetasuna sortuko du eta are zaurgarriago bihurtuko gaituzte, zaintzailea kanpoko hartu-emanetatik isolatuko gaituen hesi bihurtuko baita. Informazioa

- *El 20,7% de las mujeres con discapacidad ha sufrido violencia física o sexual de alguna pareja (frente al 13,8% de las mujeres sin discapacidad).*
- *El 40,4% de las mujeres con discapacidad ha sufrido violencia en la pareja (frente al 31,9% de las mujeres sin discapacidad).*

Fuente: Macroencuesta violencia contra la mujer. 2019.

eskuratzeko mugak, bai eta komunikazio- eta ulermen-oztopoak ere, muga oso sendoak dira sarritan, eta ezin izaten dira gainditu.

Desgaitasun fisikoa duten emakumeen aurkako **indarkeriaren eta diskriminazioaren arrazoien** artean, faktore kulturalak, sozialak, ekonomikoak, fisikoak eta psikologikoak daude, eta honela laburbil daitezke:

- Desgaitasunarekiko jarrera ezkorrak.
- Bazterkeria, isolamendua eta pobrezia.
- Babes sozialaren falta.
- Indarkeriaren euskarri kulturala.
- Generoa eta boterearen desoreka.
- Abusu instituzionala.
- Jarrera ezkorrak.
- Desgaitasunaren izaera.
- Sinesgarritasunari buruzko hautemate ezkorrak.

Azkenik informatzera, aholkatzera, prebenitzera, sentsibilizatza, indarkeriaren biktima diren emakumeak babestera, artatzera eta kaltea konpontzera bideratutako **programek** ez dituzte **kontuan hartzen desgaitasuna duten emakumeok planteatzen ditugun berezitasunak**, eta eskuraezin bihurtzen dira guretzat.

ELKARTEAN
ERAKUNDEAREN JARRERA
ETA PROPOSAMENAK

DESGAITASUN
FISIKOA DUTEN
EMAKUME ETA
NESKATOEN ESKUBIDE-
BERDINTASUNERAKO
ETA ESKUBIDEAK
BERMATZEKO

Patriarkatuaren berezko rola bizirik diraute oraindik, eta baita desgaitasunarekiko aurreiritziak eta diskriminazioa ere; horregatik, **zeharkako ikuspuntu bikoitz batetik landu behar da, genero-ikuspuntua desgaitasun-politikan txertatuz eta desgaitasuna genero-politikan txertatuz.**


Elkartean-ek desgaitasuna duten emakume eta neskatuen erabateko garapena, aurrerapena eta indartzea ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea aldarrikatu nahi du, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako helburu hauek lortzeko:



- Gure **ahalduntzea bultzatu eta etorkizuna erabakitze eta non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitze eskubidea bermatzea**, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuak izan gabe, eta genero-rol eta estereotipoek eraginda, bide zehatz bat hartzea behartuak izan gabe, bizimodu independentea garatuz, beste edozein pertsonak bezala.
- **Komunitateko zerbitzu, baliabide eta espazio guztietara sarbidea ziurtatzea**, gure partaidetza bermatuz; batzuetan, gehiegizko babesak, zaintza-rolak eta irisgarritasun unibertsaleko oztopoek mugatu egiten baitute.
- **Hezkuntza-eremuan, desgaitasuna duten neskato eta emakumeen nortasunaren, gaitasunaren eta ahalmenaren ahalik eta garapen handiena bultzatzea**, ditugun banakako beharrezkoak eta etorkizunerako itxaropenei erantzunez, prestakuntza-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrietan.
- **Desgaitasuna duten emakumeek askatasunez aukeratutako edo onartutako lana lortzeko aukera izateko eskubide bermatzea**, lan-merkatu eta lan-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrian.
- Mendeko beste pertsona batzuen **zaintzaile-lanetan aritu nahi duten desgaitasuna duten emakumeekiko diskriminazioa desagerraraztea**, horretarako behar dituzten laguntzak eta bateratze-neurriak erraztuz.

- **Hirigune eta eraikuntzetan irisgarritasuna eta segurtasuna ziurtatzea**, gune kritiko edo segurtasunik gabeak kontuan hartuz (genero-ikuspegidun hirigintza, garraio segurua...).
- **Irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzea osasun-zentro, ospitale** eta gainerako espazio, altzari, material eta tresna guztietan, desgaitasunen bat duten emakumeei arreta emateko osasun-sistemako miaketa, proba diagnostiko eta abarretarako.
- **Desgaitasuna duten emakumeen errealitate berezia eta beharrianak kontuan hartzea**, indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako prebentzioko, lagun-egiteko arreta emateko, babesteko eta kaltea konpontzeko politiketan, kontuan hartuta jasan behar izaten dituzten era askotako indarkeria-motak eta erasotzaile anitzak.
- Desgaitasuna duten emakumeen **dimentsio sexualaren era askotako alderdiak**, zein ama izateko nahia (askatasunez hala aukeratzen dutenean) **garatzea ukatzen duten estereotipoak apurtzea**.
- **Haien indibidualtasuna errespetatzea, eta desgaitasuna duen emakume bakoitzaren espezifikotasuna ulertzea**, emakume talde heterogeneo horren homogeneizazioa saihestuz, aniztasun osoan errespetatzeko.
- **Familiatan jarrera-aldaketa sustatzea**, desgaitasuna duten neskatoak, gazteak eta emakumeak gehiegizko babes berezitik aska ditzaten, babes hori gizonena baino askoz handiagoa baita.

- **Pertzepzio eta irudi soziala aldatzea.** Oro har, desgaitasuna duten emakumeen pertzepzioa okerra eta eskasa da: desgaitasuna duten emakumeen taldean denak berdinak direla uste da, eta homogeneousatu egiten gaituzte. Gainera, asexualtzat hartzen gaituzte eta gizonek baino gaitasun intelektual txikiagoa dugula uste izaten dute.
- **Elkarte-bizitzan parte har dezagun sustatzea,** gauzak aldarazten aktiboki lagunduz; horretarako, beharrezkoa da gure ahalduntze eta prestakuntza bultzatzea, berdintasunaren alde borrokatzeko.
- **Desgaitasuna duten emakumeen aniztasuna ikusaraztea eta kontuan hartzea lortzea** emakume guztien eskubideak aldarrikatzeko **talde feministetan.**




HORRETARAKO, HONAKO PROPOSAMEN HAUEK EGITEN DITUGU ARLO HAUETAN:

1.

AHALDUNTZEA - BIZIMODU INDEPENDENTEA - PARTAIDETZA

- Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzea (banakakoa eta kolektiboa, betiere inklusiboa) erraztuko duten baliabideak, laguntzak, laguntza-taldeak eta sareak irisgarriak eta egokituak izatea.
- Baliabide eta laguntza horiek emakume bakoitzak egin behar duen ibilbidera egokitzea, kontuan hartu behar baita ahalduntzearen prozesuak hainbat fase gainditzea eskatzen baitu. Batzuetan beharrezkoa izan daiteke bizipen komunei aurre egiten dieten taldeetan hastea, ondoren emakumeen aniztasun osoa barne hartzen duten talde inklusiboetara igarotzeko.
- Emakumeei baliabide eta laguntza horien berri ematen zaiela ziurtatzea, horietan aktiboki parte har dezaten motibatzea eta animatzea, bilera- eta jarduera-guneetan egon daitezkeen irisgarritasun-oztopo guztiak ezabatzea.
- Udaletan eta auzoetan laguntza-talde horiek sustatzea, emakume guztiak kontuan hartuta beren aniztasunean.
- Ahalduntze-prozesu horretan laguntzea, bizimodu independentea bizitzeko gai sentitzeko prozesuaren parte gisa (beren bizitzaren jabe eta protagonista izatea).
- Ahalduntze-prozesu horretan laguntzea, beren ekarpenen garrantziaz jabetu daitezen, bai eta baliabide komunitarioak haiek erabiltzeko eta gozatzeko ere badirela jakin dezaten ere.

- Etorkizuna erabakitzeko eta non, nola eta norekin bizi nahi duen erabakitzeko eskubidea bermatzea, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartu gabe, eta genero-rol eta estereotipoek eraginda, bide zehatz bat hartzera behartuak izan gabe, bizimodu independentea garatuz, beste edozein pertsonak bezala.
- Komunitateko zerbitzu, baliabide eta espazio guztietarako sarbidea ziurtatzea, beren partaidetza bermatuz; batzuetan, gehiegizko babesak, zaintza-rolak eta irisgarritasun unibertsaleko oztopoek mugatu egiten baitute.



L.

PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA

- Desgaitasuna duten neskato eta emakumeen nortasun, gaitasun eta ahalmenaren ahalik eta garapen handiena bultzatzea, dituzten banakako beharrezaneiei eta etorkizunerako itzaropenei erantzunez, prestakuntza-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrietan.
- Baita bizitzan zeharreko prestakuntza-prozesuan ere, interes guztiak erabat garatzeko. Bereziki, iraganean prestakuntza jasotzeko eta garatzeko benetako aukera gutxiago izan zituzten emakumeentzat.
- Eskura dauden aukera eta alternatiba guztietara bideratzea, aukeratutako garapen handiena lortzeko, beste emakume batzuen antzera. Generoagatiko alborapenik gabe, eta desgaitasunagatiko mugarik gabe.
- Behar dituzten laguntza eta egokitzapen guztiak dituztela ziurtatzea, baita laguntza pertsonalerako sarbidea ere, baldin eta prestakuntza osatzeko edo espezializatzeko beren lurraldetik kanpo irtetea erabakitzen badute (laguntzaile pertsonalen mugikortasuna).
- Genero-ikuspegia duen hezkuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzea, desgaitasun-ikuspegia duen hezkuntza ere gehituta.
- Desgaitasuna duten emakumeek askatasunez aukeratutako edo onartutako lana lortu ahal izateko eskubide bermatzea, lan-merkatu eta lan-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrian.

3.

EMAKUME ZAINZAILA, EMAKUME AMA

- Zaintzea hautapen bat dela ziurtatzea, eta ez emakumeen rol tradizionalari lotutako inposaketa bat, baita desgaitasun fisikoa duten emakumeentzako ere.
- Mendeko beste pertsona batzuen zaintzaile-lanetan aritu nahi duten desgaitasuna duten emakumeekiko diskriminazioa desagerraraztea, horretarako behar dituzten laguntzak eta bateratze-neurriak erraztuz.
- Adingabeak hartu edo adoptatu nahi dituzten desgaitasuna duten emakumeenganako edozein diskriminazio ezabatzea.
- Banantze- edo dibortzio-prozesuetan, seme-alaben zaintza beren gain hartu nahi duten emakumeekiko bereizkeria oro ezabatzea, behar diren laguntzak izango dituztela ziurtatuz, bikotekide ohiarekiko berdintasun-egoeran kokatzeko.



4.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

- Hiri-gune eta eraikuntzetan irisgarritasuna eta segurtasuna ziurtatzea, gune kritiko edo segurtasunik gabeak kontuan hartuz (genero-ikuspegidun hirigintza, garraio segurua...).
- Irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatzea Osasun Sistemako osasun-zentro, ospitale eta gainerako guneetan, desgaitasuna duten emakumeei arreta eskaintzeko.
- Irisgarritasunari buruzko Legea betetzea gizarte-inguruneko leku publiko eta baliabide guztietan, batez ere aisialdirako eta topaketarako lekuetan, bai eta ahalduntze-tailerrak eta emakumeentzako foroak egiten diren lekuetan ere.



5.

INDARKERIA

- Desgaitasuna duten emakumeen errealitate berezia eta beharrianak kontuan hartzea, indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako prebentzioko, lagun-egiteko, arreta emateko, kaltea konpontzeko eta babesteko politiketan, kontuan hartuta jasan behar izaten dituzten era askotako indarkeria-motak eta erasotzaile anitzak.
- Eragile juridiko eta polizialak etxera bertaratzen direla bermatzea, deklarazioa hartzera edo salaketa berrestera, emakumeak hala eskatzen badu. Salaketa jartzen denean segurtasuna eta erasotzailearen urruntzea bermatzen dela ziurtatzea.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzuak ziurtatzea prozesuaren fase guztietan.
- Leku, gailu eta baliabide guztietan irisgarritasun-baldintzak bermatzea prozesuaren fase guztietan (polizia-etxean, poliziaren ibilgailuetan, etxebizitza-baliabideetan, etab.), eta baita segurtasuna eta erasotzailearengandik urruntzea ere.
- Baliabide egokiak eta eskuragarriak (bai laguntza pertsonalekoak zein etxebizitza egokitukoak) seme-alabekin batera bizimodu independentea berregin ahal izateko leku seguru eta egokitan.
- Osasun-arloko, gizarte-zerbitzuetako, hezkuntzako eta abarretako profesionalak indarkeria-egoerak hautemateko protokolo guztietan IRIS galdera-sorta txertatzea.
- Gailu, zerbitzu, prebentzio-kanpaina, tratamendu, kontsulta ginekologiko eta abarren eskuragarritasuna eta irisgarritasuna bermatzea.

5.


INDARKERIA

- Etxebizitzaren irisgarritasunerako laguntzak eskuratzeko aukera bermatzea, nahiz eta azken urteetan jaso izan balituzte ere (babes-neurri gisa bizitzen jarraitu ezin duen beste etxebizitza baterako).
- Gauez ere garraio irisgarria eta segurua jartzea, etxetik gertu gelditzeko aukerarekin, betiere geldialdia egiten den ingurunea irisgarria bada.
- Desgaitasunaren gain-kostua kontuan hartzea indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako laguntzetan.
- Tratu txarrek eragindako desgaitasun fisikoa duten emakumeek behar dituzten laguntza, zerbitzu eta prestazio guztiak dituztela bermatzea.
- Prestakuntza indartzea, desgaitasun fisikoa duten emakumeek honako hauek ezagutzeko: beren gorputza, autoestimua, afektibitatea, sexualitatea, ukapeneko hasierako jokabideak, tratu txar psikologikoak edo indarkeria fisikoa...
- Baliabide egokiak eta eskuragarriak (bai asistentzia pertsonalekoak zein etxebizitza egokitukoak) seme-alabekin batera bizitza independentea berregin ahal izateko leku seguru eta egokitan. (ez zaitu gaitasunik gabe uzten zure seme-alaben kargu egiten jarraitzeko, haien zaintzarekin izateko, etab.).

6.

SEXUALITATEA

- Desgaitasun fisikoa duten emakumeek beren sexualitatea beraiek aukeratzen duten bezala bizi ahal izatea ziurtatzea.
- Desgaitasuna duten emakumeen dimentsio sexualaren era askotako alderdien garapena ukatzen duten estereotipoak apurtzea.
- Gailu, zerbitzu, prebentzio-kanpaina, tratamendu, kontsulta ginekologiko eta abarren eskuragarritasuna eta irisgarritasuna bermatzea, aukera-berdintasunean eta diskriminaziorik gabe, gainerako emakumeen moduan.
- Sexualitatearen arloan laguntza-produktuak ziurtatzea.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeen autoestimua ahalduntzea eta indartzea, beren gorputza, afektibitatea, sexualitatea, ukapeneko hasierako jokabideak, tratu txar psikologikoak edo indarkeria fisikoa aitortzea.



1.

AMATASUNA


- Desgaitasuna duten emakumeei ama izateko aukera bermatzea, askatasunez aukeratzen dutenean.
- Espazio eta tresna guztien irisgarritasuna bermatzea prozesuaren fase guztietan: erditzeko prestakuntza, erditzea, erditze ondokoa, edoskitzea.
- Eremu guztietako profesionalekin lan egitea, desgaitasun fisikoa duten emakumeen artean amatasunaren garapena ukatzen duten estereotipoak hausteko.
- Laguntza pertsonala ziurtatzea, amak amatasun-esperientzia eta seme-alaben hezkuntza bizi ahal izan ditzan.



8.

ESKU HARTZEA

- Profesionalen prestakuntza esku-hartzerako:
 - erritmoak egokitzea,
 - zuzenean emakumeengana jotzea,
 - informazioa ulertu duela ziurtatzea,
 - komunikatzeko, mugitzeko eta abarrerako behar dituen laguntza-gailuak edo -produktuak zeintzuk diren hautematea eta haien eskura jartzea.
 - emakumeei galdetzea zer behar duten horretarako.



9.

MUGIMENDU FEMINISTA

- Desgaitasuna duten emakumeen parte-hartzea bermatzea batzar irekietan, irisgarritasuna zainduz.
- Desgaitasuna duten emakumeen parte-hartzea bermatzea antolatutako ekitaldietan (manifestazioak, kontzentrazioak, jarduerak).
- Desgaitasuna duten emakumeen errealitatea eta haien beharrak jarduera-protokoloetan, ekintzak azaltzen dituzten dossierretan, manifestuetan eta abarretan txertatzea.
- Sortzen diren ikus-entzunezko euskarrietan (kartelak, liburuxkak, bideoak, etab.) desgaitasuna duten emakumeak islatzea.



10.

DATUAK ETA ESTATISTIKAK

- Azterlan guztietan, indarkeriari buruzko datuak eta estatistikak jasotzea, eta, oro har, desgaitasuna duen emakumearen aldagaia, baita desgaitasun-mota eta desgaitasun-gradua eta indarkeria-mota ere, besteak beste.





EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN KOORDINATZAILEA

ELKARTU GAITASUNA



ELKARTU GAITASUNA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES